

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Udal zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituenaren 9 zenbakia duen ordenantza aldatzea. (Espediente: 2025/1314)

Laudioko Udalbatzak, 2025eko martxoaren 31 egunean egin zuen osoko bilkuran, onartu egin zituen behin behineko izaeraz udal zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituenaren 9 zenbakia duen ordenantza aldatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.a) artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da aldaketa horren erabakia, eta ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera aplikatuko da:

“Gaia: aldatzea Zerbitzu publikoen prestazioarengatiko edota jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzeko ordenantza, 9. Zenbakia duena

Gizarte Kohesio arloko arduradunak, 2025eko martxoaren 17ko txostenean, udal zerbitzuak edo jarduerak emateagatiko prezio publikoak arautzen dituen 9. ordenantzako XIII. ataleko “Etixerako laguntza zerbitzua ematea” eta XIV. ataleko “Eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzu ematea” eranskinak aldatu behar direla jakinarazi zuen. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak finkatzen ditu urtero prezioak, foru-dekretu bidez edo baliokidea den ebazpen baten bidez.

Prezio publikoak onetsi edo aldatzeko prozedura Foru Gobernu Kontseiluak irailaren 29an emandako 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onestekoaren 52. artikuluan ezarritakoa da, hots: “prezio publikoak ezartzea edo aldatzea udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik”.

“Indarrean dagoen legeria” horri dagokionez, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onestekoaren 47. artikulura jo dezakegu, prezio publikoak ezartzeari dagokionez honako hau jasotzen baitu: “prezio publikoak ezartzea edo aldatzea udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio, hargatik eragotzi gabe Gobernu Batzarrari eskuordetzeko dituen ahalmenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.2.b) artikuluen arabera”.

Espedientean jasoak geratu dira, batetik, Udal Kudeaketa arloko Ekonomia azpiarloko teknikariak 2025eko martxoaren 17an emandako txostena eta Udaleko idazkari nagusiak 2025eko martxoaren 17an emandakoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta aldeztu aurretik Osoko Bilkurako Gaiaren eta Mozioen Batzorde Informatibo Iraunkor Orokorraren irizpena izanda, Osoko Bilkurak hau

EBATZI DU

LEHENENGOA. Onestea 9 zenbakia duen ordenantzaren, alegia zerbitzu publikoen prestazioarengatiko edota jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza aldatzeko proposamena.

Ordenantza honen eranskinetako ataletan honako aldaketa hau ezartzen da:

XIII. Etixerako laguntza zerbitzua ematea: prezio publiko honen 3 eranskinak aldatu direlarik, honela geratuko da idatzia:

“ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEAREN ATALAREN ERANSKINAK

I. ERANSKINA

PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

Arabako Foru Aldundiak finkatuko du, ekitaldi ekonomiko bakoitzean arautzen duen foru-dekretuaren edo ebazpen baliokidearen arabera.

II. ERANSKINA

AHALMEN EKONOMIKO NAHIKOAREN MUGA

Arabako Foru Aldundiak finkatuko du, ekitaldi ekonomiko bakoitzean arautzen duen foru-dekretuaren edo ebazpen baliokidearen arabera.

III. ERANSKINA

HOBARI APLIKAGARRIAK

Arabako Foru Aldundiak finkatuko ditu, ekitaldi ekonomiko bakoitzean arautzen duen foru-dekretuaren edo ebazpen baliokidearen arabera.”

XIV. Eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzu ematea: prezio publiko honen 3 eranskinak aldatu direlarik, honela geratuko da idatzia:

“EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN ZERBITZUA EMATEA

I. ERANSKINA

PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

Arabako Foru Aldundiak finkatuko ditu, ekitaldi ekonomiko bakoitzean arautzen duen foru-dekretuaren edo ebazpen baliokidearen arabera.

II. ERANSKINA

AHALMEN EKONOMIKO NAHIKOAREN MUGA

Arabako Foru Aldundiak finkatuko du, ekitaldi ekonomiko bakoitzean arautzen duen foru-dekretuaren edo ebazpen baliokidearen arabera.

III. ERANSKINA

HOBARI APLIKAGARRIAK

Arabako Foru Aldundiak finkatuko ditu, ekitaldi ekonomiko bakoitzean arautzen duen foru-dekretuaren edo ebazpen baliokidearen arabera.”

BIGARRENA. Argitaratzea Erabakiaren testu osoa ALHAOn eta udaletxeko iragarki-oholean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 45.1.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta adieraztea testua argitaratzen den egun berean sartuko dela indarrean.”

Udal zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituenaren 9. ordenantza aldatzeko erabaki honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Laudio, 2025eko apirilaren 1a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ